



Francisco de Goya margolariaren birraitona Zeraingo (Gipuzkoa) Mantxola baserrian jaio zela gogora ekarri dute Jose Mari Telleriaren burdinazko eskultura baten bitartez.

Goyaren jatorria gogoan

Naiara Elola Zerain

Francisco de Goya y Lucientes Fuentetodosen (Zaragoza, Espainia) jaio zen 1746an. Haren biziaz eta obraz asko idatzi den arren, bada datu bat horren ezaguna ez dena. Izan ere, Goyaren birraitona Euskal Herrian jaio zen, Gipuzkoako bihotzean dagoen Zerain herrian hain zuzen ere.

Orain 250 lagun inguru bizi dira Zerainen, baina oraindik oroitzen dira Goyaren birraitona non jaioa zen: Mantxola baserrian. Hala, 1980ko hamarkadaz geroztik hainbat ekitaldi egin dituzte hori oroitzeko. Margolariaren bustu bat ere jarri zuten herriko plazan. 1996. urtean, margolari ezagunaren omenez, euskal artista talde batek erakusketa antolatu zuen San Blas ermitan.

Aitziber Makazaga Zeraingo turismo bulegoko arduraduna da, eta haren aburuz, zeraindarrek beti izan dute gogoan zein zen Goyaren jatorria. Orain herria kultura proiektu batean dago murgilduta, eta horren harira plazan zegoen bustoa eskultura modernoago batengatik ordezkatu dute.

Azken horren egilea Seguran jaio eta Zerainen bizi den Jose Mari Telleria artista da. Batik bat pintura lantzen du. Eskulturaren proiektua duela zortzi urte inguru jarri zen martxan, eta artista ugari aurkeztu zituzten beren lanak. Zerainek historian zehar burdinarekin izan duen erlazio zuzena kontuan hartuta aukeratu zuen Telleriak material hori Goyari omenaldia egiteko.

Erlazio estu horren adierazle dira Aizpeako meategiak. Izan ere, burdin meategi horiek balio handia dute. Burdina lortzeko jarraitu beharreko prozesu guztia zuzen-zuzenean eta leku berean ikusteko aukera ematen duten bakarretakoa baita Euskal Herrian.

Bestalde, Goyak eta Zerainek duten loturaren adierazle gisa, Telleriaren lanean G eta Z hizkiak antzematen dira, hurrenez hurren Goyari eta Zeraini erreferentzia eginez. Lau metroko garaiera du, eta bi mila kilo baino gehiago ditu. Bustua, berriz, datozen asteetan Mantxola baserrian, Goyaren birraitonaren jaiotetxean, jarriko dute. Makazagak dioenez, «herrikoek tristura apur bat hartu dute bustua tokiz



Zeraingo Mantxola baserrian jaio zen Goya margolariaren birraitona. GOTZON ARANBURU / ARP

aldatu dugulako». Antza denez, estimu handia zioten artista omentzen zuen bustuari. «Herriarrek beti izan dute gogoan Goya nondarra zen». Hala, Zerain bisitatzeko aitzakia bat gehiago da, Goyaren birraitonaren jatorria, alegia.

Margolariaren abizenari dagokionez, turismo bulegoko teknikariak dioenez, Goia abizena ez da batera arrotza Zerainen. Oraindik zeraindar dezentek dute. Antza denez, Goia deiturak Goikoetxea baserrian du jatorria, eta historian izan-

dako eboluzioaren bitartez laburtu egin da.

Francisco de Goyak birraitona zeraindarra zuelako, eta hura margolari handia zelako gogoan du beti Zerainek. Egun, distantziak txikiak dira lehengo aldean. Herriko plazan jarritako Jose Mari Telleriaren burdinazko eskulturaren bitartez, distantziak txikitu egin dira, bai urteen distantzia bai geografikoa. Duela pare bat estetiko, Francisco de Goya Zeraindik inoiz baino gertuago dago.



Maritila

Aurelia Arkotxa

Melencolia I

Gérard de Nerval-ek 1855ko urtarrilaren 25tik 26ra doan gauean Pariseko La

Lanterne karrikan urkatzen du bere burua. Hil ondoan, aurkitzen diote jakaren sakelari Aurélia-ren bigarren partearen eskuizkribua. Aurélia izenak idazleak maitatu izan dituen emazte guziak erreprezentatzen dituela diote. Autobiografikoa ote narrazioa? Lehen pertsonan mintzo den pertsonaia idazlea bera ote?... Aurélia heriotza ote? Zeren pertsonaiak hau dio: «Gau batez... Pariseko auzo batera nindoala, farola batek argitzen zuen etxe baten aitzinetik pasatu nintzen eta begiak goititzen nituela ohartu nintzen egoitza horrek ene adinaren zenbakia zuela. Orduan berean, begiak behetitzean emazte hits bat, begiak sartuak zituena, gurutzatu nuen, iruditu zitzaidan Auréliaren eite bazuela. Ene baitan pensatu nuen haren heriotza ziztaidala anuntziatua, edo berdin enea. Eta ez dakit zergatik bigarren hipotesia nuen atxiki: biharamunean izanen zela ene heriotza, oren berean.» Gau hartan gure pertsonaiak amets bat egiten du. Amets gaizto bat. Ikas gela anitz dituen etxe batean badabil. Ateratzen da handik, eskailera zabalak dituen ostatu batean bilatzen du, ondotik, bere logela. Galtzen da pasabide labirintikoetan. Eta hona non izaki hegaldun ikaragarri bat agertzen zaion: «Plegu antikoak zituen soinekoa zuen, Dürer-en malenkonian den aingeruaren eitea zuen. Nahigabe egin nituen garrasiek iratzarrazarri ninduten.» Nervali Aurélia izenean Dürer-en aingeru malenkonikoa zaio agertzen. Bere malenkonia propioa.

Ostirala 2008ko azaroaren 28a

berria

